

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
**MUGIKORTASUNAREN**  
**AZTERLANA**

**2007**

*aurrera doan* **herria**

*un país* **en marcha**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

GARRAIO ETA  
HERRI LAN SAILA

DEPARTAMENTO DE  
TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

**Argitalpena:**

Eusko Jurlaritz. Garraio eta Herri Lan Saila

**Zuzendaritza:**

Iñigo Palomino Zubiaurre

**Koordinazioa:**

Aintzane Izaguirre Etxeberria

**Kontsultoreak:**

SIT y LKS

**Ale-kopurua:**

1.000 ejemplares

**Diseinua:**

MOTIVACIÓN

**Lege-gordailua:**

BI-2732-07



## 1. AURKEZPENA

Euskal gizartea aurrera eginez eta aldatuaz doan neurrian, Euskadin bizi eta lanean diharduten pertsonentzat ere aldatuaz doa mugikortasunaz daukaten pertzepzioa eta dimentsioa. Harremanetarako denboraren eta espazioaren antolamendu sozioekonomikoa bera etengabeko aldaketan sartuta dago. Izan ere, gure ohituretako asko aldatu egin dira, izan lanekoak izan gure aisialdiari lotutakoak; hori dela eta, beharrezkoa da mugikortasunari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko datuak eta datu horien ezaugarriak zehatz-mehatz jakitea, egungo euskal gizartearen benetako beharrei egokiago erantzungo dieten zerbitzu hobek eskaintzeko.

Gaur egun, XXI. mendearen hasieran gaudelarik, mugikortasuna dugu, agian inoiz baino gehiago, banaka zein kolektiboki garatzeko benetako aukera. "Mugikortasunari buruzko Ikerketa 2007" honek hainbat alderdi biltzen dituzten mugikortasunari buruzko datu xehatuak jasotzen ditu: moduzko ikuspegia, lurraldeari dagokion ikuspegia eta desplazamendu bakoitzaren atzean dauden motibazio nahiz eragileak presente daude ikerketa honetan. Kontu hauek guztiak, zalantza barik, interes handikoak dira garraio eta azpiegitura politikak diseinatzeko ardura dugunontzat.

"Mugikortasunari buruzko Ikerketa 2007" honekin, gizarteri oro har, erakundeei eta garraioaren sektoreko profesionaleri, EAEko mugikortasun errealaren berri eman nahi diegu, datu hauetatik abiatuz, Garraio Iraunkorrerako gure estrategian aurrera egiteko. Estrategia hori, hain zuzen, funtsezkotzat jotzen dugu gure gizartea gero eta indar handiagoz egiten ari den mugikortasun eskariari egoki erantzuteko. Izan ere, euskal gizartea gizarte modernoa da, lehiakorra, eta europar parametroaei dagokienez, garapen ekonomiko betean dagoena.

Hauxe da, hain zuzen ere, Garraio eta Herri Lan Sail honen helburuen artean giltzarrietako bat: euskal gizartearen interesei, premiei eta gero eta handiagoa den mugikortasun eskariari ahalik eta ondoen erantzutea.

Honenbestez, gure betebeharra da intermodalitate, irisgarritasun, iraunkortasun, eraginkortasun eta lehiakortasun parametroetan oinarritutako garraio eta azpiegitura politiken alde egiten jarraitzea. Zinez uste dugu esku artean duzun ikerketa honek eta antzekoek lagundu egiten digutela zerbitzu publikoa, garapen ekonomikoa eta ingurumenarekiko errespetua uztartuko dituzten azpiegiturak eta garraio sistema bat lortzeko ezin uko eginezko ahalegin horretan aurrera egiten

Nuria López de Guereñu Ansola  
Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailburua